

TABERNA ETA TXOSNAKO LANGILEAK:

FESTAK DENOK ONGI PASATZEKO DIRA, BERAZ, ERASOREN BAT IKUSTEN BADUZUE EDO JAKINARAZTEN BADIZUTE **ESKU HARTU**:

Erasoak dira....

- Adierazitakoa aintzat ez hartzea.
- Iraintzea.
- Umilatzea.
- Kritikatzeta.
- Golpatzea.
- Itxura fisikoa ebaluatu eta komentatzea.
- Jarraitzea.
- Deserosotasuna edo beldurra sortzen duen edozein jokabide!
- Baimenik gabe ukitzea edo igurztea.
- Behin eta berriz harremantzen saiatzea.
- Exhibizionismoa.
- Nahiauren aurka hurbiltzea.
- Sexua izateko norbait presionatzea.
- Bortxatzea.
- Adostu gabeko harremana eraso da!

Eraso zure gunean baldin bada...

- Jendea ohartarazteko eraso bat gertatzen ari dela musika itzali eta argiak piztu.
- Irten barratik, ahal baldin bada beste norbaitekin batera, eta eskatu erasotzaileari edo erasotzaileei gunetik irtetzeko.
- Garbi adierazi jokaera okerra izan dutela.
- Saiestu egoera bortitzak, erasotzaileak edo erasotzaileek aurre egitekotan ez egin aurre, segurtasuna lehenetsi.
- Ez utzi bakarrik erasotua berak hala eskatzen badu edo zuri hala iruditzen bazaizu.
- Egoera kudeatzeko laguntza behar izatekotan deitu 112ra eta eskatu ambulanzia bat.
- Erasotuak denuntzia jarri nahi badu gogoraerazi aholkularitza juridiko presentziala jasotzeko eskubidea duela komisaldegian.
- Denbora behar badu erabakiak hartzeko, aholkatu laguntza zerbitzuetara gerturatu edo harremanetan jartzea:
 - Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua (24/7 arreta): **900 84 01 11**
 - Biktimari Laguntzeko Zerbitzua: **900 100 928 / 943 00 07 68**
 - Hariberri (Sexu indarkeriari arreta integrala emateko Gipuzkoako foru zerbitzua): **900 840 188/747 44 43 89**
 - Berdindu!: **943 216 551**
 - Segurako Gizarte Zerbitzuak: **943 801 006**
 - Segurako Berdintasun Zerbitzua: **690 295 976**

Erasotua hartatu...

- Laguntza eskaini: **"Nola zaude?" "Zertan lagun zaitzaket?"**
- Enpatia eskaini, esan bera ez dela ezeren erantzule eta erasoak ezin direla justifikatu: **"Ez duzu ezer txarrik egin."**
- **Ez baloratu, ez epaitu, ez jarri zalantzan bere hitza, ez estutu erabakiak hartzeko.**
- Ez utzi bakarrik, saiatu bere konfiantzazko norbait aurkitzen/kontaktatzen, bestela, gelditu berarekin.
- Gune seguru batera bideratu: argiztatua, eseri daitekeena, behar duen denboran egon daitekeena.
- Errespetatu bere denbora: **"Lasai egon, nahi baduzu hemen egongo naiz zurekin."**
- **Ez hartu erabakirik bere baimenik gabe.**

SEXU-ERASO EDO BORTXAKETA BADA...

- **Erasotuak ez badaki salaketa jarri nahi duen edo ez, informatu ezazu:**

- Garbitzen bada, zerbait jaten badu, zerbait edaten badu edo arropak aldatzen baditu frogak galdu dizatzkeela.
- Zaurituta badago edo arreta medikua behar badu, zerbitzu medikuak derrigortuta daude juzgadoetara parte ematera, berak nahi edo ez nahi.
- Juzgadoetara parte eman arren, ostean berari deitzean esan dezake ez duela jarraitu nahi prozesuarekin.

- **Salaketa jarri nahi badu:**

- Egokiena 112ra deitu eta anbulantzia bat eskatzea da, hartatu egingo dute.
- Larrialdi zerbitzuek juzgadoetara abisua pasako dute eta frogak jasoko dituzte.
- Ondoren erabaki dezake prozesuarekin jarraitzea.

GOZA DITZAGUN FESTAK
ASKATASUNEZ!



INDARKERIA MATXISTARI EZ!



SEGURAKO UDALA

SEGURAKO
UDALEKO
PAREKIDETASUN
ARLOA

